

1. ERANSKINA

EUSKARAZKO KULTUR JARDUERAK DIRUZ LAGUNTZEKO DEIALDIAREN OINARRIAK

1.- Xedea.

1.1. Oinarri hauen xedea da 2025eko irailaren 1etik 2026ko ekainaren 30era bitartean Nafarroako Foru Komunitateko Hezkuntza Departamentuaren eskumenekoak diren Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetako ikasleak protagonista diren eskola-orduetan egiten ez diren kultur jarduerak. Jarduera horien azken helburua kultur emanaldia eskaintzea dutenak, herritar guztientzat irekiak eta euskaraz osoki garatuak. Jarduerak antzerkia, kantua, musikala, bertsolaritza edo/eta poesia arte diziplinetako ikuskizun kulturalak izango dira.

Deialdi honek 2024-25 ikasturtea hartzen du, 2024ko irailaren 1etik 2025eko ekainaren 30era bitartean.

Jarduera horiek egiteko laguntzetarako eskaera aurkeztu behar dute, ikuskizunaren protagonistak izanen diren ikasleen izenean, irakaskuntza arautuaren hezkuntza esparruko guraso elkarteek, fundazioek, federazioek edo herri ekimeneko kooperatibek. Hori egin ahal izateko, Nafarroako Gobernuaren Elkarteen eta Fundazioen Erregistroan alta emanda egon behar dute.

1.2. Deialdiak bi helburu ditu: batetik, eremu ez-akademikoetan euskararen erabilera sustatzea eta, bestetik, ikasle euskaldunak motibatzea, euskarazko kultura-ekoizpenean inplikatur.

2.- Onuradunak eta betebeharrak.

2.1. Deialdi honi atxikitzen ahalko zaizkio Nafarroako Gobernuko elkarteen eta fundazioen erregistroan alta emanda dauden entitateak eta Gizarte Ekimeneko Kooperatiba elkarteak.

2.2. Laguntzaren entitate onuradun izateko baldintzak:

Deialdi honen barneko laguntza eskatzen ahalko dute irakaskuntza arautuaren hezkuntza esparruko guraso elkarteek, fundazioek, federazioek edo herri ekimeneko kooperatibek, betiere honako baldintza hauek betetzen badituzte, dirulaguntza zer ekitaldi ekonomikotarako ematen den, ekitaldi guztian eutsita baldintzei:

- Jarduerak hezkuntzaren alorrean gauzatzea.
- Legez eratutako pertsona juridikoa izatea eta Nafarroako Gobernuko Elkarteen Erregistroan behar bezala inskribatuta egotea.
- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea, dagozkion ziurtagirien bidez frogatuz (Foru Ogasuna eta Gizarte Segurantzak), edo erantzukizunpeko adierazpenaren bidez, 4. eranskinean erantsitako ereduaren arabera, baldin eta aurreko betebeharretan aipatzen diren aitorpenak edo dokumentuak aurkeztera behartuta ez badaude.
- Hezkuntza Departamentuarekin lankidetzak-hitzarmenik, zerbitzu-kontrataziorik edo bestelako kontratu edo konpromisorik sinatuta ez izatea, finantzatu nahi den proiektuari dagokionez. Laguntza horiek bateragarriak izanen

dira beste administrazio publiko batzuek emandakoekin, betiere bien baturak ez badu gainditzen jardueraren gastua (horretarako beste administrazio, entitate edo pertsona publiko edo pribatu batzuei eskatutako eta/edo haiengandik jasotako diru-laguntzen aitorpena, zehaztuta eskatutako zenbatekoa, entitatearen izena eta lortutako zenbatekoa, 6. eranskinaren arabera).

- Jardueretan parte hartzen duten langileek, adingabeekin harremanetan egon ohi direnek, Sexu Delitugileen Erregistro Zentralaren ziurtagiri negatiboak izatea, eta horiek Hezkuntza Departamentuaren eskura egotea, egiazta ditzan.

- Eskatzailea ez egotea zehapen administratibo irmorik edo kondena-epai irmorik betetzen, edo, hala bada, ez egotea zehapen eta kondena-epai bat bete zain, sexuan edo generoan oinarritutako diskriminazioa dakarten lan arloko jardunbideak gauzatu edo toleratzeagatik.

- Xedeak edo helburuak, onarpen- edo sarbide-sistema, funtzionamendua, ibilbidea, jarduna, antolaketa edo estatutuak gizonen eta emakumeen arteko berdintasun-printzipioen aurkakoak ez izatea.

- Berdintasunerako Foru Legean edo Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan ezarritako betebeharrak bete izana.

3.- Diruz lagundutako jarduera-motak eta kanpoan utzitako jarduerak.

3.1. Diruz lagundutako jarduerak. Oinarri hauek guztiak bete beharko dira:

- Antzerkia, kantua, musikala, bertsolaritza edo/eta poesia arte-diziplinetako ikuskizun kulturalak.
- Nafarroako Foru Komunitateko Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetako ikasle ez-unibertsitarioek egindako jarduerak eta lehen aipatutako erakundeek Hezkuntza Departamentuaren eskumenekoak diren ikastetxeetan antolatutakoak.
- Nafarroako Foru Komunitateko Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetako ikasle ez-unibertsitarioak protagonista diren jarduerak.
- Azken helburua kultur emanaldia eskaintzea duten jarduerak, herritar guztientzat irekiak eta euskaraz osoki garatuak.

3.2. Kanpoan utzitako jarduerak.

- Ikasturte bukaerako eskola festa.
- Euskara hutsean ez diren jarduerak.
- Eskolako oporraldietan egindako jarduerak.
- 3.1 atalean ezarritako oinarri guztiak betetzen ez dituzten eskolaz kanpoko eta eskola-orduetan egiten ez diren jarduerak.

4.- Diru-laguntzaren zenbatekoa.

4.1. Erabilgarri dauden kredituen barnean deialdi honetan zehaztutako gehieneko zenbatekoa: 20.000 €.

4.2. Aurrekontuko partida: "Euskarazko eskolaz kanpoko kultur jarduerak diruz laguntzea" izeneko 42001-42400-4816-322002 partida, 2026ko gastuen aurrekontuko edo ekitaldi horretan Gastuen Aurrekontuan gaitzen den partida hori, betiere kreditu nahikoa egotearen baldintzapean.

4.3. Banakako kopurua gehienez, eta kopuru hori zehazteko irizpideak: entitate bakoitzari muga bat ezartzen zaio, guztira: aurrekontuan onartutako gastuaren %70; nolanahi ere, ez da 5.000 eurotik gorakoa izanen.

4.4. Eskaera guztiei erantzun ondoren, diru erabilgarria geldituko balitz helburu hori duen partidan, hainbanaketa aplikatuko litzateke, eta behar den portzentajea gehituko lirateke laguntzak, beti ere, 4.3 oinarrian ezarritako 5.000 euroko kopurua gaingaitu gabe.

4.5. Diruz lagundu ezin diren kontzeptuak:

- Adierazitako egunean, jardueraren azken helburua den kultura-ikuskizuna egiteko erabiltzen ez diren espazioak alokatzea; kasu horretan, emanaldi bakarrari dagokiona bakarrik lagunduko da diruz.

- Eszenografia-, irudi- eta soinu-ekipo teknikoan alokairuko eta erabili gabeko argiztapen-kostuak, eta, beraz, azken antzezpenean sortu ez direnak. Kasu horretan, antzezpen bakarrari dagozkionak bakarrik lagunduko dira diruz.

- Parte hartzen duten ikasleei edo jardueraren prestakuntzan tutoretza ematen dieten irakasleei zuzendutako edozein prestakuntza mota.

- Egin beharreko jarduera prestatzearekin zuzenean lotuta dauden kontzeptuak, merkatura egokitutako prezio zehatz batera egokitzen ez diren hirugarrenei kontrata dakizkiekeenak (dirulaguntza eskatzen duen fundaziotik, APYMATik, kooperatibatik kanpokoak...). Horretarako, hirugarrenen hiru aurrekontu aurkeztu beharko dira

gutxienez, eta aipatu hirugarren horiek ezin izango dute inolako lan-harremanik izan erakunde eskatzailearekin.

4.6. Jasotako diru-laguntzak ez du inola ere gaindituko aurkeztutako aurrekontua.

5.- Entitate onuradunaren betebeharrak.

Deialdi honen ondorioetarako, entitate onuradunaren betebeharrak dira atal honetan ezartzen direnak; honako hauek, alegia:

5.1. Entitate onuradunek proiektua hitzartutako moduan eta datetan garatu beharko dute eta diruz lagundutako jardueraren garapenean gertatutako edozein gorabehera jakinarazi, gertatzen den unean. Proiektuan edozein aldaketa egiteko organo kudeatzailearen adostasuna beharko da, eta horrek baimena emanen du baldin eta aldaketak ez badu proiektua funtsean aldatzen.

5.2. Entitate onuraduna behartuta dago diruz lagundutako jardueren publizitatea egitera eta jarduera horien publizitate-euskarrietan Hezkuntza Departamentuaren logotipoak jasotzera. Logotipo horiek Eleaniztasunaren eta Arte Ikasketen Zerbitzuko Euskara Atalean eskatuko dira, "Laguntzailea/colabora" testuarekin. Testuak ele bitan editatuko dira (euskaraz eta gaztelaniaz).

Ekitaldia diru-laguntza eman aurretik egin bada, ez da nahitaezkoa izanen logotipoa jartzea inprimatutako materialean (esku-orriak, kartelak). Hala ere, zabalkunde telematikoan, webgunean eta aldaketa egiteko aukera ematen duen edozein hedabidetan, diru-laguntza eman bezain laster

aldaketa egingen da, eta Hezkuntza Departamentuaren logotipoa sartuko, aurreko apartatuko baldintzei jarraituz.

5.3. 12. oinarriko 2. atalean aipatzen diren justifikazio agiriak aurkeztea, baita 5. eranskina ere, behar bezala betea.

5.4. Genero ikuspuntua proiektu osoan sartzea, era koherentean, integralean eta zeharkakoan. Hizkuntza eta irudi inklusiboak eta ez-sexistak erabili beharko dira.

5.5. Dirulaguntza eman dela jakinarazi eta hilabeteko epean, entitate onuradunek gardentasunari buruz duten betebeharraren aitorpena aurkeztu beharko dute telematikoki, eta baita eskatzen zaien dokumentazioa ere, maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legearen (gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa) 3. artikuluan ezarritakoarekin bat, hala badagokio, foru lege horretan ezarritakoaren arabera.

Aitorpen eredua (8. eranskina) eta aginduzko dokumentazioa Nafarroako Gobernuaren webgunearen bitartez kontsultatu, bete eta tramitatzen ahalko dira: http://www.navarra.es/home_eu/Servicios/, edo dirulaguntza hau kudeatzen duen Eleaniztasunaren eta Arte Ikasketen Zerbitzuko Euskara Atalaren bidez.

Izan daitezkeen zehapenak galarazi gabe, onuradunak informazioa emateko duen betebeharra urratuz gero, ez zaio emandako dirulaguntza ordainduko eta, zerbait aurreratu bazaio, itzuli egin beharko du.

5.6. Deialdi honetan diruz lagundutako programa egiteko erabili beharko da diru-laguntza, ez beste edozertarako.

5.7. Hezkuntza Departamentuko Eleaniztasunaren eta Arte Ikasketen Zerbitzuko Euskara Atalean justifikatzea diruz lagundutako proiektua gauzatu dela eta zer gastu egin den.

5.8. Hezkuntza Departamentuko Eleaniztasunaren eta Arte Ikasketen Zerbitzuko Euskara Atalak proiektua burutu dela egiaztatzeko noiznahi egingen dituen lanak onartzea.

5.9. Jasotako diruaren erabilerari buruzko frogagiriak gordetzea, agiri elektronikoak barne, egiaztatze eta kontrol lanen xede izan daitezkeen bitartean.

5.10. Entitateak garaiz eman beharko du egiten dituen jardueren buruzko informazioa, aldian behin Nafarroako Gobernuaren web-orrian eta beste hedabide batzuetan zabal dadin.

6.- Eskaeren aurkezpena, epea eta dokumentazioa.

6.1. Eskabideak Hezkuntza Departamentuko Eleaniztasunaren eta Arte Ikasketen Zerbitzuari zuzendu behar zaizkio, telematikoki, Nafarroako Gobernuaren Erregistro Elektronikoaren bidez, nahiz aurrez aurre Nafarroako Gobernuaren edozein erregistrotan aurkeztu beharko dira.

Entitateetako lehendakariak edo ordezkariak egin beharko dituzte eskaerak.

6.2. Hilabeteko epea dago eskaerak aurkezteko, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

6.3. Eskabideak Nafarroako Gobernuaren erregistro elektronikoaren bidez (erregistro orokor elektronikoaren bidez eskuragarri, <https://www.navarra.es/eu/tramiteak/on/-/line/Erregistro-Orokor-Elektronikoa> helbidean), edo aurrez aurre Nafarroako Gobernuaren edozein erregistrotan aurkeztuko dira, horretarako ezarritako eredu ofizialaren arabera. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.8 eta 66.6 artikuluetan xedatutakoarekin bat. Ez aurkeztutzat joko dira ereduarekin (2. eranskina) bat ez datozen eskabideak.

6.4. Eskabide orokorrari deialdi honen eranskinak gehituko zaizkio. Nolanahi ere, ondoren adierazitako dokumentazioa aurkeztu beharko da:

a) Eskabidea, 2. eranskinaren arabera.

b) Programatutako jardueraren edo jardueren azalpen-memoria laburra, proposamena 8. puntuan ezarritako irizpideen arabera behar bezala baloratzeko behar diren alderdiak zehazten eta garatzen dituenak. Gehieneko luzera: 5 orrialde, DIN A4.

Memoriak honako hauek jasotzeko beharko dituzte berariaz:

- Lortu nahi diren helburuak.

- Tokiko kultura-agendari egindako ekarpena, interesari eta aniztasunari dagokienez.
- Programatutako jarduera, antolaketa-alderdiak eta ikastetxeetan aurreikusitako alde zureko lana, kalitatea bermatzeko.
- Hartzaileak, egutegia eta tokia (zehaztu edukiera eta sarrera-aurreikuspena).
- Jarduerak arlo hauetan egiten duen ekarpena: metodologia aktiboak sustatzea, euskara erabiltzea, ikasleak motibatzea eta euskarazko kultura-ekoizpenen sortzaile gisa duten ahalmenaz jabetzea.
- Entitate eskatzailearen ibilbidea eta aurretik egindako lanak, diru-laguntzaren xede den jarduera egiteko garrantzitsuak direnak.

c) Jardueren aurrekontua, 3. eranskinari jarraikiz.

d) Erantzukizunpeko aitorpena, 4. eranskinaren arabera.

e) Ordainketa transferentzia bidez jasotzeko eskaera (7. eranskina), banku entitateak bete eta zigilatuko duena. Agiri hori web-orri honetan ere jasota dago:

[http://www.navarra.es/home es/Servicios/Recursos/Impresos+de+Tesoreria.htm](http://www.navarra.es/home_es/Servicios/Recursos/Impresos+de+Tesoreria.htm)

Foru Ogasunarekiko eta/edo Gizarte Segurantzarekiko zerga-betebeharrak egunean dituztela egiaztatzen duten aitorpenak edo agiriak aurkeztu behar badituzte, dagozkien egiaztagiria aurkeztu beharko dituzte.

Eskatzaileei 10 egun naturaleko epea emanen zaie gehienez, jakinarazi eta biharamunetik aitzina, falta diren agiriak aurkeztu eta egindako akatsak zuzentzeko. Halakorik egiten ez badute, eta epea iraganik, eskaerari uko egin diotela ulertuko da.

Diru-laguntza eskatzeak berekin dakar deialdi honetako oinarri guztiak onartzea.

7.- Bateragarritasuna.

Eskatzaileei beste administrazio publiko batzuek kultura-jarduera berberetarako emandako laguntzak eman badizkiete, diruz lagundu duen administrazioak emandako zenbatekoaren egiaztagiria aurkeztu beharko dute, eta laguntza hori eta Hezkuntza Departamentuak emandakoa batuta, inoiz ez dira egindako gastuaren zenbatekoa eta 4.3 oinarrian ezarritako kopurua baino handiagoak izanen. Edonola ere, entitate eskatzaileak Eleaniztasunaren eta Arte Ikasketen Zerbitzuari jakinarazi beharko dio zer laguntza eskatu edo jaso duen, 6. eranskinaren arabera.

Jarduera bera diruz lagunduko da, emanaldi eta egoitza kopurua edozein direla ere.

8.- Eskaerak baloratzeko irizpide objektiboak.

Aurkeztutako jarduerak deialdi honetako 1. oinarriko 1.1 eta 1.2 ataletan adierazitako baldintza, modu eta lehentasunen arabera baloratuko dira, eta baremo honen arabera ere bai (100 puntu, gehienez):

Programatutako jardueren kalitatea	1. Programaturiko jardueraren interesa: tokiko kultura-agendari egindako ekarpena, aniztasunari dagokienez. 2. Programatutako jardueraren kalitatea: plangintza eta aldez aurreko lana.	20 puntu 20 puntu	Guztira: gehienez ere, 40 puntu.
Eragiteko gaitasuna, bideragarritasuna eta jarraitzeko bokazioa	3. Entitate eskatzaileak kulturaren arloan duen ibilbidea eta aurretik egindako lanak. 4. Programatutako jarduerarekin jarraitzeko bokazioa.	10 puntu 10 puntu	Guztira: gehienez ere, 20 puntu.
Eragina ikasleen motibazioan eta jarreran	5. Metodologia aktiboak sustatzea. 6. Ikasleek euskara erabil dezaten sustatzea. 7. Euskararekiko motibazioa eta jarrera hobetzea, euskara jarduera atsegingarriekin	10 puntu 10 puntu 10 puntu	Guztira: gehienez ere, 40 puntu.

	lotuz. 8. Kultura-eragile eta -sortzaile gisa duten ahalmenaz jabetzea.	10 puntu	
--	---	-------------	--

Gutxienez 60 puntu lortu beharko dira diru-laguntza jaso ahal izateko. Diru nahikorik egon ezean, banaketa puntuazioaren arabera egingo da.

9.- Eskaerak ebaluatzeko balorazio organoa.

Balorazio batzordea honako hauek osatuko dute:

- Euskara Ataleko burua.
- Euskararen Sustapenaren eta Didaktikaren Bulegoko burua.
- Euskara Ataleko hezkuntza aholkulari bat.

Balorazio batzordeak eskaera guztiak baloratu eta esleitu dituzte, deialdi honetan ezarritako baldintzen arabera.

10.- Deialdiaren ebazpena.

Hautapen batzordeak esleipen prozesuaren behin-behineko emaitzak zerrenda batean argitaratuko ditu web-orri hauetan ("Berriak"- "Gaur-gaurkoa"):

-<https://www.educacion.navarra.es/web/dpto/actualidad>
(gaztelaniaz)

-<https://www.educacion.navarra.es/eu/web/dpto/actualidad>
(euskaraz)

-Nafarroako ataria (www.navarra.es).

Izapideak harpidetza egiteko aukera emango du, interesdunak informazioa argitaratzen den unean bertan jaso dezan.

Zerrenda horretan honako hauek agertuko dira:

- Behin-behinekoz esleitu diren eskaeren zerrenda.
- Baztertutako eskaeren zerrenda, arrazoia zein izan den zehaztuta.

Hautagaiek erreklamazioak aurkez ditzakete hautapen batzordearen aurrean, hiru egun baliouduneko epean, behin-behineko zerrenda argitaratzen denetik. Epe hori iraganik, erreklamazioak aztertu eta ebatzi ondoren, batzordeak ebazpena jakinaraziko die entitate adjudikaziodunei eta esleitutako laguntzen behin betiko zerrenda argitaratuko du. Inolako zuzenketarik egin ezean, epe hori igaro ondoren, eskaeran atzera egin dela ulertuko da.

Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako zuzendari nagusiak gehienez hiru hilabeteko epean ebatziko du deialdi hau, eskaerak aurkezteko epea bukatzen denetik hasita, batzordearen proposamenarekin bat.

11.- Diru-laguntza ordaintzea.

Entitate bakoitzari jarduera egin eta 12. oinarrian aipatzen den justifikazioa aurkezteko betebeharra bete ondoren ordainduko zaio diru-laguntza transferentzia bidez:

- Aurkeztutako justifikazioa onartutako aurrekontua baino txikiagoa bada, azken diru-laguntza proportzionalki murriztuko da.
- Gastuen justifikazioa aurkeztu ondoren, Balorazio Batzordeak esleipendun bati emandako dirulaguntza baliogabetzea edo murriztea erabakitzen badu, esleitutako zenbatekoa gainerako esleipendunen artean banatuko da, 4.

oinarrian ezarritakoaren arabera.- Dirulaguntzaren zenbatekoa.

Laguntza emateko kontuan hartu diren baldintzen edozein aldaketak berekin ekartzen ahal du laguntza emateko ebazpena aldatzea.

Laguntza hauen onuradunak behartuak daude Hezkuntza Departamentuak eskatzen dien informazio guztia ematera, eta behar diren finantza-kontrolerako lanen menpe geldituko dira. Oinarriotan ezarrita ez dagoen orotan, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legean ezarritakoa aplikatuko da.

12.- Justifikazioa.

1. Justifikatzeko modalitatea: ezarritako baldintzak bete eta diru-laguntza ematerakoan aurreikusitako helburuak lortu direla justifikatzeko, modalitatea "justifikazio-kontu sinplifikatua" izanen da.

2. Justifikazioa egiteko modua: emandako diru-laguntzaren justifikazioa indarreko legeriaren arabera eta **5. eranskineko** ereduaren arabera aurkeztuko da, Nafarroako Gobernuaren Erregistro Elektronikoa (egoitza elektronikoa eskuragarri, www.navarra.es helbidean), edo aurrez aurre Nafarroako Gobernuaren edozein erregistrotan, honako dokumentazio honekin batera:

- b) 5. oinarriko 5.2. puntuko betebeharrak bete direla egiaztatzen duen adierazpena (egindako publizitatearen alea edo kopia).

Justifikazio-kontu sinplifikatuak dokumentazio hau izanendu:

- a) Diru-laguntza ematerakoan ezarritako baldintzak betetzen dituela frogatzeko jarduketa memoria bat, egindako jarduerak eta lortutako emaitzak azalduko dituen. Hizkuntza eta irudi inklusiboak eta ez-sexistak erabili beharko dira. Egindako publizitatearen justifikazioa ere erantsiko da (5. eranskina).
- b) Jardueraren gastuen eta inbertsioen zerrenda sailkatu bat, hartzekoduna eta agiria identifikatuta, baita zenbatekoa, jaulkipen eguna eta ordainketa eguna ere (5. eranskina).
- c) Orobat, aurkeztuko dira egindako gastuen fakturak edo merkataritzako trafiko juridikoan froga balio bera edo eraginkortasun administratiboa duten bestelako agiriak, eta egindako ordainketen frogagiriak, diru-laguntzaren helburua bete dela frogatzeko.
Dokumentuak (fakturak eta gainerako gastu-egiaztagiriak) modu korrelatiboan zerrendatu beharko dira (1, 2, 3...) eta gastuen justifikazio-taulan agertzen den ordena berean aurkeztu.
- d) 100 eurotik gorako gastuen ordainketak bankuko ordainagirien bidez frogatuko dira. Zenbateko horretakoak edo txikiagoak diren gastuak, berriz, fakturen bidez edo froga balio bera duten beste dokumentu batzuen bidez justifikatzen ahalko dira, kasu bakoitzeko ordainagiriak erantsita, hots: bankuko frogagiriak, "ordainduta" zigilua daramaten fakturak (hornitzaileak sinatuak eta zigilatuak), edo faktura edo ordainketa frogatzen duen beste edozein dokumentu.

- e) Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten bestelako diru-laguntzen edo diru-sarreraren azalpena, bakoitzaren zenbatekoa eta jatorria adierazita (6. eranskina). Argi eta garbi zehaztuko da zein jarduera zehatzek jaso duten diru-laguntza.
- f) Hala balegokio, itzulketaren ordainketa gutuna, aplikatu gabeko gerakinen kasuan, baita haietatik eratorritako interesena ere.

Organo emaileak laginketa-tekniken bidez egiaztatuko ditu erabakitzen dituen egiaztagiria, diru-laguntza egoki aplikatu dela arrazoiz frogatzeko. Horretarako, onuradunari eskatzen ahalko dio hautatutako gastuen egiaztagiria igortzeko.

5. eranskineko berariazko inprimakian aurkeztuko dira a), b) eta c) atalak.

Ekintza irabazizko ekintza bihurtzen bada, Hezkuntza Departamentuak emandako diru-laguntza itzuli egingen da, lortutako onuraren arabera.

3. Justifikazioa emateko epea: 2026ko uztailaren 31ra arte, barne, Nafarroako Gobernuaren Erregistro Elektronikokoan (egoitza elektronikokoan eskuragarri, www.navarra.es helbidean), edo aurrez aurre Nafarroako Gobernuaren edozein erregistrotan aurkeztuko dira, Hezkuntza Departamentuko Eleaniztasunaren eta Arte Ikasketen Zerbitzuari zuzendua.

Justifikatzeko epeak luzaezinak izanen dira eta ez da onartuko epetik kanpo iristen den dokumentaziorik.

Hezkuntza Departamentuak eskubidea du edozein motatako informazio osagarria eskatzeko eta diruz laguntzen diren jardueren ikuskapena eta kontrola egiteko. ARAU hauek hausten badira, emandako diru-laguntza baliogabetu egingen da, halaber, zentro onuradunak jasotako zenbatekoak itzuli beharko ditu, diru-laguntza ordaindu zenetik aurrera sortutako legezko berandutze-interesak gehituta, eta hurrengo deialdian parte hartzeko eskubidea galduko du.

13.- Diru-laguntza itzultzeko arrazoiak.

Dirua itzultzeko arrazoiak sortzen direnean, jasotako diru guztia edo zati bat itzuli beharko da, eta berandutze-interesa ordaindu diru-laguntza ordaintzen den unetik itzuli beharra erabakitzen den egunera artekoa, atal honetan aurreikusitako kasuetan:

- a) Diru-laguntza lortzea, horretarako eskatzen diren baldintzak faltsutuz edo hori eragotziko zuketzen baldintzak ezkutatuz.
- b) Diru-laguntzaren xede den helburua, jarduera edo proiektua burutu gabe uztea, osorik nahiz hein batean, edo hartu behar zen jokabidea hartzen ez denean.
- c) Justifikatzeko betebeharra ez betetzea, edo behar bezainbat ez justifikatzea.
- d) Egiaztapenak eta finantza-kontrolak saihestea edo haiei uko egin edo trabak eta eragozpenak jartzea, eta kontabilitateari, erregistroari eta agirien kontserbazioari buruzko betebeharrak ez betetzea, baldin eta horren ondorioz ezin bada egiaztatu hartutako dirua zertarako erabili den, helburua lortu ote den eta diru-laguntza jaso duten jarduerak benetan eta erregularitasunez egin diren.

- e) Administrazioak entitate laguntzaileei eta onuradunei ezarritako betebeharrak ez betetzea, edo onuradunek hartutako konpromisoak ez betetzea, baldin eta konpromiso horiek zerikusirik badute diru-laguntzaren xede diren helburuak lortzeko, jarduera egiteko, proiektua gauzatzeko edo jokabidea hartzeko erabili behar den moduarekin.
- f) Administrazioak entitate laguntzaileei eta onuradunei ezarritako betebeharrak ez betetzea, edo onuradunek diru-laguntza onartzerakoan hartutako konpromisoak ez betetzea, baldin eta horren ondorioz ezin bada egiaztatu hartutako dirua zertarako erabili den, helburua lortu ote den eta diru-laguntza jaso duten jarduerak benetan eta erregulartasunez egin diren.
- g) Publizitate eta zabalkunde neurriak hartzeko betebeharra ez betetzea, agirietan eta propagandan jarduera Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak diruz lagundua dela aipatu ez baita, halako baldintza ezarri den kasuetan.
- h) Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorrean aurreikusitako gainerako kasuak.

14.- Diru-laguntza borondatez itzultzea.

1. Borondatezko itzulketa da onuradunak Administrazioak inolako errekerimendurik egin gabe egiten duena.
2. 887/2006 Errege Dekretuaren 90. artikuluan xedatutakoaren arabera, onuradunak bere ekimenez itzultzen ahalko du Hezkuntza Departamentuak emandako diru-laguntza, hark eskatu gabe.
3. Horretarako, lehenik eta behin, onuradunak diru-laguntza itzultzeko eskaera egingen du, eta horren arrazoiaren berri emanen du.

Onuradunak eskatuta itzuliko da diru-laguntza, ordainketa-gutun bidez. Hezkuntza Departamentuak onuradunari emanen dio ordainketa-gutuna.

15.- Arau-hausteak eta zehapenak.

Arau-hauste eta zehapenei dagokienez, 11/2005 Foru Legean, azaroaren 9koan, Diru-laguntzei buruzkoan xedatutakoari jarraituko zaio.

16.- Diru-laguntzen araubide juridikoa.

Deialdi honetan aurreikusi ez den orori dagokionez, araudi honetan ezarritakoa aplikatuko da:

- 11/2005 Foru Legea, azaroaren 9koa, Diru-laguntzei buruzkoa.

17.- Errekurtsoen araubidea.

Interesdunei haien eskubideak eta interesak ukitzen dituzten ebazpenak eta administrazio-egintzak jakinaraziko zaizkie, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. artikulua eta hurrengoek ezarritakoarekin bat.

Oinarri hauen aurka eta horiek betearazteko hartzen diren administrazio ebazpenen aurka, errekurtso hau aurkezten ahalko da:

- Gora jotzeko errekurtsoa, Hezkuntzako kontseilariari zuzendua, hilabeteko epean, argitaratu eta biharamunetik aitzina.

18.- Bestelakoak.

Datu pertsonalen tratamendua

Tratamenduaren arduraduna: Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuko Eleaniztasunaren eta Arte Ikasketen Zerbitzua.

Helburua: zerbitzu horrek aurreikusitako diru-laguntzak edo laguntzak kudeatzea, dagokion deialdia edo laguntza arautzen duten oinarri edo arauen arabera.

Emandako diru-laguntzak edo laguntzak emateko ezarritako baldintzak betetzen direla justifikatzea.

Eskubideak: datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeke eskubidea duzu, bai eta beste eskubide batzuk ere, Eleaniztasunaren eta Arte Ikasketen Zerbitzura joz edo euskaraatala@navarra.com helbide elektronikoaren bidez.

Informazio gehigarria: datuen tratamenduei buruzko informazio gehigarri eta zehatza Hezkuntza Departamentuaren webgunearen egoitza elektronikoan dago eskuragarri.

Eskabidean edo elkarbizitzari buruzko adierazpen erantsian jasotako **datuak falta edo faltsutzen badira**, edo aurkeztutako agiriak faltsuak badira, horren deuseztasuna deklaratu da, egileek izan ditzaketen erantzukizunez gain.